

**KANTUKETAN ERAKUSKETAN ENTZUTEN AHAL DIREN  
KANTUEI BURUZKO AZALPENAK**

## **2.B.2**

### **1. Basa ahaideak**

**Basa ahaideak, Xiberoko mendietan emaiten diren hitzik gabeko kantuak dira. Gizonaren harridura irudikatzen dute, arranoen eta belatxen hegalkada bakoitzean, bai eta ere haren airatzeko nahikundea...**

Los *basa ahaideak* son canciones instrumentales propias de los montes de Zuberoa. Reflejan el asombro del ser humano ante cada uno de los aletazos de los águilas y los buitres, así como su deseo por volar...

### **2. Berterretxen khantoria**

**« Berterretxen khantoria »-k, Louis de Beaumont, Mauleko Jauregiko Kondeak Larrañen egin Berterretxe gaztearen hilketa kontatzen digu. Alabainan, Etxebarre Ezpeldoiko alaba Margaritarekin ezkondu beharra zelarik, ez zuen onartu Kondeak, ohituren arabera, lehen gaua espos berriarekin pasa zezan. Hain segur ere, kantua bertsolari batek egina da Beaumontarren eta Gramontarren arteko gatazka denboran (1434 eta 1449 urteen artean).**

"Berterretxen khantoria" narra el asesinato del joven Berterretxe a manos de Louis de Beaumont, conde del palacio de Maule, cometido en Larrain. Ocurrió que al casarse con Margarita, hija de los Etxebarre Ezpeldoi, no consintió que el conde, siguiendo la costumbre, pasara la primera noche con la recién casada. Seguramente fue un bertsolari quien compuso este canto durante el período de guerra entre los Beaumont y los Gramont (entre 1434 y 1449).

### **3. Arranoak bortuetan**

**Xiberoko kantuen zilarra! Doinu librean, poesia tinkoan, alegiazko eta egiazko ixtorioen nahasketa nabaritzen da. Azken koplak agertarazten digu hartza, Auñamendiko basagizonaren sinbologia.**

¡Esplendor de los cantos de Zuberoa! Con melodía libre y sólida poesía, combina historias verídicas y de leyenda. La última copla nos introduce al oso, que es símbolo del hombre salvaje del Pirineo.

#### 4. Goizean goizik

**Goizean ezkondu, arratseko alarguntsatu, senarra pozoindatua izan baitzen ! Emaztearen zortea ! Huna zer dion kantu hunek, 1633an Altzaiko aldean iragan gertakari latzaz. Denbora berean amodioari buruz egiten ahal diren gogoeta ezinago minberak erakusten dizkigu.**

Pasó de convertirse en esposa por la mañana, a viuda al anochecer, ¡su marido había sido envenenado! ¡Mala suerte la de aquella esposa! Eso es lo que cuenta esta canción sobre el lamentable suceso ocurrido en las cercanías de Altzain en 1633. Al mismo tiempo nos muestra reflexiones muy dolorosas a cerca del amor.

#### 5. Atharratze Jauregian

**Dirudienez, Xiberoko kantu hau 1584an Jaurgaineko Marik eta Atharratzeko Jaunak hitzartu ezkontza batean oinarritzen da. Ezkonberriaren herstura helarazten digu, aitari “biga bat bezala” saldu izana leporatzen diolarik.**

Al parecer esta canción está basada en la boda acordada entre Mari de Jurgain y el señor de Atharratze en 1584. Nos traslada al crítico momento en la vida de la recién casada, quien acusa a su padre de haberla vendido "como a una becerro".

#### 6. Jeiki Jeiki

**Itsaslapur kantua, seguraski XVIIgarren mende hondarrekoa. Alabainan, garai hartan Holandarrak hasi ziren bakalauaren arrantzan, ordu arte Euskaldunek zuten erabateko nagusitasuna hautsiz.**

Se trata de una canción de piratas, probablemente de finales del siglo XVII. Fue por aquella época cuando los holandeses comenzaron a pescar bacalao, rompiendo así la hegemonía que hasta entonces ostentaban los vascos.

#### 7. Txori errexiñula

**« Txoria zaude ixilik, ez egin nigarrrik. Eztüzü profeitürrik hola tristatürrik. Nik eramanen zütüt xedera libratürrik. Oriko bortütik. Orogen gaisetük »**

"Calla pajarito, deja de llorar. No sacarás provecho poniéndote así de triste. Yo te libraré de tus ataduras. Desde la cima del monte Ori. Sobrevolándolo todo."

## 8. Plañu niz bihotzetik

**Bertze amodiozko kantu bat, euskara garbi eta distirant batean idatzia : irudikatzea eta berrelgarretaratzean oinarritua.**

Otra canción de amor, escrita en un euskara limpio y pulido: la ilusión y el reencuentro son su base.

## 9. Argizagi ederra

**Amodio dohakabe batetarik egin kantu hau idatzia izan da aspaldiko gregoriano doinu moduan.**

Este canto está inspirado en un amor desgraciado, y su melodía imita al gregoriano antiguo.

## 10. Kontu barri bat

**Miguel Basterretxeak 1685. urtean Eibarren kantatuak. « Amorio zor da(n) beti amoraduen artean, Ugartek orain probatzen ditu zeloak zertzuk direan ».**

Cantado por Miguel Basterretxea en Eibar el año 1685. "Entre amantes existe siempre una deuda de amor, ahora está probando Ugarte lo que son los celos".

## 11. Argizagiak argitzen dizü

**« Argizagiak argitzen dizü, gaiüz zohardi denean. Ene maitea ikusi dizüt dantzan plazaren erdian... »**

"Los astros te iluminan en la noche está despejada. Amor mío, te he visto bailar en medio de la plaza..."

## 12. Iturengo arotza

**Ezezagun batek Iturengo arotzaren « ohoretan » egin kantu satirikoa. Arotzak San Kristobalen brontzezko itxura urtarazi omen zuen kabalen joareen egiteko...**

Se trata de una canción satírica que un desconocido compuso en "honor" del carpintero de Ituren. Dicho carpintero fundió una figura de bronce de San Cristóbal con el fin de hacer cencerros para sus animales.

### 13. Kalla kantuz

« **Kalla kantuz ogipetik uztail-agorriletan. Maiteganik etxerakoan entzuna izan dut bortzetan. Amodioak bainerabilan haren ate-leihoetan... »**

«En el estío, canta la codorniz desde el trigal. La escucho con frecuencia al regresar a casa desde donde vive mi amada. El amor me empuja a su puerta...»

### 14. Uso xuria errazu

« **Uso xuria errazu norat joaiten ziren zu. Espainiako mendiak oro elurrez beteak dituzu. Gaurko zure ostatu, gure etxean baduzu... »**

"Palomita blanca, dime a dónde vas. Están cubiertos de nieve todos los montes de España. En nuestra casa encontrarás cobijo por esta noche..."

### 15. Iruten ari nuzu

“***Iruten ari nuzu, kilua gerrian, ardura dudalarik nigarra begian...***”  
**Amodiozko kantu ederrenetarik eta etsituenetarik bat.**

"Estoy hilando con la rueca en la cintura, y, con frecuencia, afloran lágrimas en mis ojos..."  
Se trata esta de una de las canciones de amor más bellas y desesperadas.

### 16. Goizian goiz jeikirik

**Maitasunezko elgarretaratze baten alegrantzietan...**

La alegría causada por una unión de amor...

### 17. Adios izar ederra

« **Adios izar ederra, adios izarra ! Zu zare aingerua, munduan bakarra... »**

"¡Adiós bella estrella, adiós estrella! Eres un ángel, una ángel único en el mundo entero..."

## 18. Bortian Ahüzki

« Maitatü züntüdala, badizü aspaldi. Ezpenereizün erran oraino zihauri... ». **Baliteke bertsu horiek Pierre Topet-Etxahunenak izaitea.**

"Sabías que te quería, aunque nunca te lo había dicho...".  
Estos versos podrían ser de Pierre Topet-Etxahun.

## 2.B.4

### 1. Boga Boga

**Beharbada azken aldikotz India aldera badoan Ondarroako marinelaren agurra...Euskal Herriko itsasturien kantu sinbolikoa.**

Éste tal vez sea el adiós del marinero de Ondarroa que zarpa hacia la India por última vez...  
Canción simbólica de los marineros de Euskal Herria.

### 2. Agota

**XVIII. mende hondarreko bertsuak. Elkarrizketa honetan, neska baten eta agote baten arteko ezinezko amodioa azaltzen zaigu. Agoteak baztertuak zituen gizarteak. XIX. mendean endurtu dira bertako biztanleekin pixkanaka-pixkanaka nahasiz.**

Versos de finales del siglo XVIII. En esta conversación se nos describe el amor imposible entre una muchacha y un agote. Los agotes estaban discriminados por la sociedad. Fueron desapareciendo en el siglo XIX al mezclarse poco a poco con los demás habitantes de la comarca.

### 3. Brodatzen ari nintzen

**Marinel batek bahitu neskak ohorea galtzea baino bere buruaz beste egitea nahi ukan du... Kantua biziko izigarrikerien lekuko...**

Una joven ha sido capturada por un marinero y, antes de perder su honor, decide poner fin a su vida... Este canto es un testimonio del lado tremendo de la vida...

#### 4. Maitia nun zira

« Ahantzi da XVIII. mende hastapenean, kantu hori sort-arazi zuen gertakari berezia : Hauze Undurein aitoretzeko andere gaztearen eta Michel de Reyau Lahüntze Barretzeko seme eta abokataren ezkontza. Undureingo jaunak, anderez behar zituzten ikaskuntzen egiteko lehenik, eta geroago ezkontza hori eztaigun arrazoan zenbaiten gatik debekatu nahiz, alaba, zuen haur bakar eta andregaia, Oloron hiriko komentu batean ezarri zuen. Aitaren menetik legez ateratzeko adinetara heldu zenean, 25 urtetara, anderea komentutik jalgi zen eta ezkontza paperak egin zituzten 1727ko otsailaren 3an. Senargai abokatak egina omen zuen kantua, ezpada hark ezagutzen zuen bertsulari zenbaitek ». *J.B. Orpustan*

"El peculiar suceso que originó esta canción parece haber caído en el olvido: la boda entre la joven dama de la casa noble Hauze Undurein y Michel de Reyau Lahüntze, hijo y abogado de (la casa) Barretxe. En un principio, el señor de Undurein pospuso la boda alegando que su hija debía aprender labores propias de la mujer; después, por alguna razón desconocida, quiso prohibir la boda de su única hija y heredera, para lo que la encerró en un convento de Oloron. Cuando llegó a la mayoría de edad (los 25 años) y pudo legalmente escapar de las redes de su padre, la joven salió del convento y el 3 de febrero de 1727 hicieron los papeles de boda. Se dice que el abogado prometido había compuesto la canción pero, probablemente, lo hicieron algunos bertsularis que él conocía". *J.B. Orpustan*

#### 5. Sarako iheslarien kantua

**1793ko azaroaren 25a. Robespierrek inposatu Izialdura garaian, gudu galtzeak eta euskal gazteen ihes joateak direla, tokiko iraultzaileek Lapurdiko mugako biztanleak Landesetarat igortzea deliberatzen dute. Horietarik 1600 hil dira. Kantu honek Nafarroa aldera ihes egitea lortu duten Saratarren auhena eskaintzen digu.**

25 de noviembre, 1793. Durante la dictadura del miedo impuesta por Robespierre, debido a las derrotas en la guerra y a la huida de los jóvenes vascos, los revolucionarios del lugar decidieron mandar a las Landas a los habitantes de la frontera de Lapurdi. 1600 de ellos perecieron. Esta canción nos ofrece el lamento de aquellos habitantes de Sara que lograron huir hacia Navarra.

#### 6. Soldado Donostian 1823an

**1823an, Espainiako Ferdinand VII.a erregearen kondu frantses tropa monarkistek liberalen eskuetan zegoen Donostia setiatzen zuten. Handik ihes zihozten bederatzi soldadu liberalen atsegabeak ditugu plazaratuak.**

En 1823, durante el reinado de Fernando VII de España, las tropas monárquicas francesas sitiaron San Sebastián, que por aquel entonces se encontraba en manos liberales. Aquí se pone de relieve el sufrimiento que padecen nueve soldados liberales en su huida.

## 7. Galerianoaren kantuak

**Lerro horiek « Bordaxuri » Hazpandarrak idatziak dira 1815ean, Paueko presondegian zelarik. Ahaideak eta bereziki aita salatzen du, preso sarrarazi baitu oinordekotza ixtorio ilun batengatik...**

Estas líneas las escribió "Bordaxuri", de Hazparne, en 1815, mientras se encontraba cautivo en la prisión de Pau. Acusa a sus familiares y, sobre todo, a su padre, quien hizo que lo aprisionasen por una oscura historia de sucesión...

## 8. Ara nun diran

**Jose-Mari Iparragirre koblakaria (1820-1881) Euskal Herrirat itzultzen da urteak erbestean egon ondoren. Itzultzearen bozkarioz, euskal lurrari eskaini ereserki hori sortzen du.**

El trovador Jose Mari Iparragirre (1820-1881) regresa a Euskal Herria tras varios años en el exilio. La inmensa alegría que siente tras su regreso le empuja a componer este himno dedicado a su tierra.

## 9. Ahaide delizius huntan

**Pierre Topet-Etxahun bertsulari xiberotarraren azken kantuetarik bat, bere biziaren gora-beherak ezin hobeki laburbildurik kondatzen dizkiguna.**

Se trata ésta de una de las últimas canciones del zuberotarra Pierre Topet-Etxahun, y en ella quedan maravillosamente resumidas las peripecias de su vida.

## 10. Ama

**“Oxobi”-ren kantua (1888-1958). Atzerrira joandako eta amaz oroitzen den artzain baten auhena. 1820 eta 1914 urteen artean, 100 000 presuna inguru joan dira Hego Ameriketarat edo Estatu Batuetarat, nagusiki artzaingoan aritzeko. Joate horiek 1970 urte arte iraunen dute.**

Canción de "Oxobi" (1888-1958). Es el lamento de un pastor que emigró y que añora a su madre. Entre 1820 y 1914 fueron unas 100.000 las personas que emigraron a América del Sur o a los Estados Unidos, la mayoría para dedicarse al pastoreo. Dicha emigración no cesó hasta 1970.

## 11. Goizuetan

**Libro gelditu den Trabuko bere gaizkideak salaturik, Iruñean preso den Goizuetako faltsutzaile baten auhena.**

Se trata del lamento de un falsificador de Goizueta que se encuentra encarcelado en Pamplona tras haber sido delatado por su cómplice Trabuko, quien, a su vez, ha quedado libre.

## 12. Forjarien kanta

**Eibarko arotzen kantua, XIX. eta XX. mendetako borroken eta langileen aldarrikapenen sinbologia.**

Canción de los herreros de Eibar, símbolo de las luchas y de las reivindicaciones de los trabajadores en los siglos XIX y XX.

## 13. Azken agurraren negarra

**1914-1918ko munduko gerla Euskaldunentzat historiaren oroitzapen mingarrietarik bat izan da, herri guzietan hil frango egin baiditu. Gorka Knörr-en kantu hau gertakari horren lekukoa dugu...**

La guerra entre 1914 y 1918 es uno de los recuerdos más dolorosos en la historia de Euskal Herria, ya que dejó muchos muertos en todas partes. Esta canción de Gorka Knörr es un testimonio de aquel suceso...

## 14. Españako gerlaz

**Espainiako gerla zibilak (1936-1939) Espainia eta hego Euskal Herria Francoren diktaturan sarrarazi ditu. Bertsu hauek gatazkaren hastapenak kontatzen ditu.**

La Guerra Civil española (1936-1939) puso a España y a Euskal Herria meridional de lleno bajo la dictadura de Franco. Estos versos hablan a cerca de los comienzos de dicha guerra.

## 15. Jeronimo artzainaren bertsoak

**Grabaketa hau Estatu Batuetako Idahon egin izan zaio Mutrikitik joan artzain bati. Bertsu hauetan Ameriketako “Ranch“-etako bizimodua xeheki agertzen digu.**

Esta grabación fue hecha en Idaho, Estados Unidos, a un pastor de Mutriku. En estos versos nos describe minuciosamente la vida en los ranchos americanos.



## 16. Algeriako egun bortitzak

**Algeriako gerla denboran frantses soldadugoaren egiten ari zen gazte batek idatzi eta kantatu bertsuak. Soldaduen etsimenduaren lekuko...**

Son unos versos escritos y cantados por un joven soldado perteneciente a la milicia francesa durante la guerra de Argelia. Crudo testimonio del sufrimiento de los soldados...

## 17. Mendingaldu direneri

**« Ezpeletako mendietan hatzeman zituzten Frantziar lanketa zatozin hiru gizon beltzen gorpuak: hotzak eta goseak hilak zituela ezagutua izan zen...Bada zenbait holako bitxikeria munduan nik injustizia ditzen ditudanak. Gertakari horrek gogoetak egin arazi zauzkitan eta pertsuak ezarri nituen hortaz ». *Fernando Aire « Xalbador »***

"En los montes de Ezpeleta se encontraron los cuerpos sin vida de tres hombres negros que pretendían encontrar trabajo en Francia: mostraban claras señales de haber muerto de frío y de hambre... Este tipo de paradojas que suceden en el mundo las califico yo como injusticias. El suceso que he mencionado me hizo reflexionar y por ello compuse algunos versos". *Fernando Aire "Xalbador"*

## 18. Jeiki Jeiki

**Estatu Batuetan sortu den Louis Michel Irigaray-ek, munduan zehar diren 165 euskal zentro horietako Euskaldunek bezala, euskal kultura biziarazten du gaur ere. Hemen « Jeiki, Jeiki » kantuaren moldaketa pertsonala ematen digu, arbasoen omenez.**

Aunque de procedencia estadounidense, Louis Michel Irigaray promueve la cultura vasca hoy en día, al igual que las demás personas de los 165 centros vascos repartidos por el mundo. Aquí nos ofrece una versión personal del tema "Jeiki, Jeiki", en honor a sus antepasados.

## 3.B.2

### 1. Belatxa

« Belatxa » Xiberoko hitzik gabeko kantua. Pariseko bi etnologok Jean-Pierre Caubet artzainarengan bildu zuten 1947an.

Horra zer zioten haien ikerlanean « *Gure bilketaren kantu bereziena Belatxa da. Euskal Herri osoan, gure inkestaren arabera behintzat, bi Xiberotarrek baizik ez dute emaiten : Mauleko erretoreak eta grabatu dugun Alozeko artzainak* ».

"Belatxa" es una melodía sin letra de Zuberoa. Dos etnólogos de París se la atribuyen al pastor Jean-Pierre Caubet en 1947.

He aquí lo que decían en su estudio: *"La canción más especial de todas las que hemos recopilado es Belatxa. De acuerdo con nuestra encuesta, en todo Euskal Herria son sólo dos zuberotarras los que la tocan: el párroco de Maule y el pastor de Aloz, de quien la hemos grabado"*.

### 2. Arranoa

Beñat Achiary kantariak eman Arranoa izeneko basa ahaidea. Ez ote digu, arranoaren hegalkadaren aitzinean, gizonak senditzen duen mirespena erakusten ?

Arranoa es una *basa ahaide* interpretada por Beñat Achiary. Tras los aletazos del águila, ¿no nos estará mostrando la admiración que siente el ser humano?

### 3. Laborarien alde

Euskal olerkari, bertsulari eta kantari ainitzek laborantza eta artzaingoa ukan dituzte iturburutzat. Erramun Martikorena artzainak, egiazko omenaldia egiten die laborariei.

Muchos poetas, bertsolaris y cantantes vascos han solido inspirarse en la agricultura y el pastoreo. El pastor Erramun Martikorena rinde un verdadero homenaje a los agricultores.

### 4. Ale arraunean

« *Kantu hau Zumaiako Manuel-ek eman zidan. Marinel kantua da, arraunean hasterakoan kantatzen zutena, indarren hartzeko* » R.M. Azkue (1919).

"Esta canción me la dio Manuel, de Zumaia. Es una canción de marineros que solían cantar cuando comenzaban a remar, para coger fuerzas" R.M. Azkue (1919).

## **5. Bulunba Bulunbi**

### **Seaska-kantua**

Canción de cuna.

## **6. Lo hadi aingürüa**

**Pierre Bordazarre « Etxahun-Iruri » (1908 – 1979) olerkari xiberotarraren seaska-kantua Oihenart ama-alabek ezin hobeki emanik...**

Canción de cuna compuesta por el poeta zuberotarra Pierre Bordazarre "Etxahun-Iruri" (1908-1979) e interpretada maravillosamente bien por Oihenart madre e hija...

## **7. Haurtxo haurtxoa**

**Olatz Zugastiren ahots ederra Mixel Labéguerie-k idatzi seaska kantatu honen arimaren adierazle...**

Preciosa la voz de Olatz Zugasti en esta canción de cuna compuesta por Mixel Labéguerie.

## **8. Xoxuak galdu du...**

**Egiatzko memoria eskatzen duen irri-kantua...**

Canción cómica que requiere de una memoria de elefante...

## **9. « Couplets des chaudronniers »**

**1947an Xiberuko bi hurrek eman euskarazko kantua frantsesezko hitz batzuekin tartekaturik. Eskolan eta familian frantsesa euskararen tokia hartzen hasia delako froga...**

Canción en euskara que dos niños de Zuberoa cantaron en 1947 intercalando palabras en francés. Prueba de que tanto en la escuela como en la familia el francés se estaba imponiendo sobre el euskara...

## 10. Gabonetako kantua

### Bizkaiko eguberriko kantua

Villancico de Bizkaia.

## 11. Arto xuritzean – Nafarroa Beherean

**Arto xuritzea kantatzeko momentu aproposa zen. Hemen, Nafarroako Behereko Haramboure jaunak karia hortarat kantatu ohi zuen leloa.**

El desgrane del maíz era un momento propicio para cantar. Aquí tenemos el canto que el señor Haramboure, de Nafarroa Behea, solía cantar con tal motivo.

## 12. Arto xuritzean – Bizkaian

**Arto xuritze kari eman bertze kantu bat. Hau aldiz, Bizkaian bildua izan da.**

Otra canción dedicada al desgrane del maíz. Esta, sin embargo, fue recogida en Bizkaia.

## 13. Kantuz

**Abesbatza anitz bada Euskal Herrian (Europa mailan dentsitate haundiena). Bainan euskal abesbatzak badira ere Txilen, Argentinan, Uruguaien, Estatu Batuetan, Perun, Mexikon... Lehen lehenik edozein kantari amaturrei biltzeko eta euskaraz kantatzeko parada ematen diete. Koru batean ari diren %70ek talde bizidun batean parte hartzeko egiten dutela adierazten dute ( Euskal Kultur Erakundea-k 1999an egin inkestaren arabera).**

Existe un gran número de coros en Euskal Herria (posee la mayor densidad de toda Europa). Por si fuera poco, contamos con agrupaciones corales vascas en Chile, Argentina, Uruguai, Estados Unidos, Perú, México... Ante todo proporcionan una oportunidad inmejorable para los cantantes aficionados de reunirse y poder cantar en euskara. El 70% de los miembros de los coros afirma que lo hacen por formar parte de un grupo activo (según una encuesta realizada en 1999 por Euskal Kultur Erakundea).

## 14. Txori errexiñoleta

**Bazkari baten giroa, Senperen (Lapurdin) : auzoen eta lagunen artean, kantatzeko molde herrikoia, naturalena...**

Ambiente de comida en Senpere (Lapurdi): entre vecinos y amigos, se trata ésta de una forma popular para cantar, la más natural...

## 15. Anjelusa – Pilotariena

**« 10ak et'erditan hasi pilota partidak oren bata edo berdin biak arte irauin dezake. Talde batentzat, ahalgerik handiena da Anjelusa baino lehen galtzea... Eguerditan, hamabigarren zeinu-danga entzun orduko, jendea tanpez xutitzen ikusiko duzu Anjelusaren kantatzeko ».**

"El partido de pelota que comienza a las diez y media, puede terminar a la una como a las dos. Para un equipo, la mayor humillación sería perder antes del Ángelus... Al mediodía, con la duodécima campanada, se puede observar cómo todo el mundo se levanta de repente para cantar el Ángelus".

## 16. Oi mirakuilu guziz

**Eukaristiako kantika ospetsuenaren bertzio ederrenetarik bat...**

Una de las versiones más hermosas y conocidas del canto de la Eucaristía...

## 17. Anjelusa

**Euskal Herrian, meza baten kantatzeko apezek errexki erdiesten dute fededun guzien laguntza. Batzuek meza kausitua izan dadin, hitz gutti eta kantu ainitz behar dela diote ! Parte hartze hori euskarazko kantu ainitz emanez gauzatzen da .**

En Euskal Herria, los sacerdotes logran fácilmente la colaboración de todos los fieles para cantar en misa. ¡Hay quien opina que para que la misa resulte agradable requiere pocas palabras y muchos cantos! Esa participación se refleja en el gran número de cantos que se ofrecen en euskara.

## 18. Belenen

**Belokeko beneditanoek eman eguberriko kantu liturgiko bat. Frailetxe hortako euskaratzaileek eta idazleek sortu zuten 1962an Vatikanoko II. Kontzilioak onartu euskarazko liturgia.**

Canto litúrgico navideño ofrecido por los benedictinos de Beloke. Fueron los defensores del euskara y los escritores de ese convento quienes crearon la liturgia en lengua vasca, aceptada por el II Concilio Vaticano en 1962.

## **19. Jainkoaren ama**

**Ipar Euskal Herriko parropietako koru elgarretaratze baten kari, Ama Birjinaren omenez eman kantua.**

Canto en honor de la Virgen María, con motivo de un encuentro de agrupaciones corales pertenecientes a las parroquias de Euskal Herria septentrional.

### **3.B.4**

#### **1. Santibatek andere**

**Lapurdi eta Nafarroa Beherean ihauteri kari, etxez etxe ematen diren eske-kopla batzuk.**

Coplas cantadas de puerta en puerta en Lapurdi y Nafarroa Beherea con motivo en Carnaval.

#### **2. Santa Ageda**

**Era honetako eske-kopla biziki ezagunak dira bereziki hegoaldean. Iparraldean ohitura hori ospatzen da ere herri batzutan. Errobi Kanta koruak eskaintzen dizkigu Santa Agedaren bezperan, otsailaren 4ean, Baionako karraketan, bertsolari baten laguntzarekin kantatzen dituen koplak.**

Este tipo de coplas resultan especialmente conocidas en Euskal Herria meridional. Esa tradición existe también en ciertos pueblos de Euskal Herria septentrional. El coro Errobi Kanta nos ofrece, con ayuda de un bertsolari, las coplas que suele cantar por las calles de Baiona la víspera de Santa Águeda, el 4 de febrero.

#### **3. Apalazio Zaldune**

**Bizkaian grabatu haurrek etxez etxe ematen zituzten koplak, urte berri kari.**

Estas coplas, grabadas en Bizkaia, las cantaban los niños de casa en casa con motivo del año nuevo.

#### 4. Maskaradak

**Ihauteriak oraino bizi-bizirik daude Euskal Herri guzian. Xiberoan, herri bateko gazteek dantza aski zailak, kantuak eta jokolarien jolasak batzen dituen karrika ikusgarri bat antolatzen dute urtero, maskarada deitzen dena.**

El carnaval sigue aún vivo en todo Euskal Herria. En Zuberoa, los jóvenes de uno de los pueblos organizan cada año un espectacular evento compuesto por diversos bailes de suma dificultad, cantos y juegos.

#### 5. Dantza eta kantua

**Urtaroko ohiduretan ere euskal dantzek leku garrantzitsua dute. Badirudi, lehen, dantzatarik batzu kantatuak zirela. Kantuen hitzak biziki baliosak ziren dantza urratsen gogoan hartzeko. Entzuten dugun lehen zati honek mutxikoen melodia hartzen du eta bigarrenak Matelotarena. Hirugarrenak aldiz soka-dantzarena oroitarazten du.**

Los bailes vascos ocupan un lugar destacado también en las tradiciones estacionales. Parece ser que, antiguamente, algunos bailes solían ser cantados. Las letras de las canciones eran sumamente valiosas a la hora de recordar los pasos del baile. La primera parte de lo que aquí escuchamos toma la melodía del *muxiko* (danza vasca similar a la mutil-dantza propia del valle de Baztán) y la segunda de Matelota. La tercera, por su parte, nos recuerda a la *soka-dantza* (nombre genérico de varios bailes vascos en los que los danzantes forman una hilera cogidos de la mano o de una pañuelo).

#### 6. Pilota puntu kantatuak

**Pilota partidetakoa puntuak euskaraz kantatzen direla erakusteko adibidea...**

Ejemplo que muestra que los tantos de los partidos de pelota se cantaban en euskara...

#### 7. Agota Pastoral

**Aspaldiko ohiturari jarraikiz, pastoralak Xiberoko herri batek sortu herri-antzerki kantatua da, biziki arau zorrotzak dituena. Den-dena kantatua da, edo bakarka edo taldeka, makilkaden soinuak finkatu erritmo batean.**

Continuando con una tradición antigua, una pastoral es una pieza de teatro popular cantada, que crea uno de los pueblos de Zuberoa, siguiendo rigurosamente ciertas normas establecidas. Toda la obra es cantada, tanto individualmente como en grupo, siguiendo el ritmo que marca un bastón.

## 8. Madalena de Jaureguiberry Pastoral

**Urte guziz milaka ikusle biltzeaz gain, pastoralak kantuaren, musikaren eta dantzaren inguruan, zinezko batasuna eragiten du herrian.**

Además de reunir a miles de espectadores año tras año, la pastoral consigue crear una verdadera unión del pueblo en torno al canto, la música y el baile.

## 9. Toberak

**Toberen ezaugarri nagusia ere kantua da. Biztanleek egoera jakin baten aintzinean duten gaitzespena erakusten dute. Lehenago aipagaiek bizimoduekin zerrikusia bazuten ere (alargunen ber-ezkontzea, emazte eta gizonen arteko gorabeherak...), geroztik egoera sozio-ekonomikoa eta politikoa aztertzen dute gehiago (etxebizitzaren arazoa, laborantzaren krisia...).**

El canto es también la característica principal de las *toberak* (forma de teatro popular). Los habitantes muestran su rechazo hacia un suceso en concreto. Si bien en un principio los temas estaban relacionados con los modos de vida (bodas de viudos o viudas, incidentes entre hombres y mujeres...), en la actualidad analizan la situación socioeconómica y política (el problema de la vivienda, la crisis agrícola...).

## 10. Pena dut eta dolore

**Herrietako bestak, ezin ahantzizko apairu kantatuen leku...**

Las fiestas del pueblo son propicias para cantar en las sobremesas...

## 11. Arrantzaleak

**Iruñeako, Baionako bestak... Herriko alaitasun unea, batzuk nazioarte mailan ezagunak. Besta horien kari ematen den kantu ainitzetarik bat...**

Las fiestas de Pamplona, Bayona... Tiempo de júbilo para el pueblo, algunas de ellas son internacionalmente conocidas. Esta es una de las muchas canciones con motivo de las fiestas...



## 12. Nevadarat

**Euskal Herriko hainbat tokitan sortu “Baiona Kantuz” bezalako kantu-topaketek herritar anitz, erdaldun nahiz euskaldun, bultzatzen dituzte besta eta ospakizun desberdinetan kantatzera. “Kantua ez baita bakarrik kontsumitzeko den produkto bat bainan bakotxak bere gogoz eta bere botzez hazten duen arloa”**

Jornadas de canto como "Baiona Kantuz" organizadas en tantos lugares de Euskal Herria, impulsan a muchísima gente, euskaldunes o no, a cantar en las fiestas o en diversas celebraciones. *"Porque cantar no es sólo un producto de consumo, sino un campo que cada uno enriquece con sus ganas y su voz".*

## 13. Helduen Kantu Txapelketa 2000

**Kantari gazte batzu agertu dira 2000ko Euskal Herriko Helduen kantu txapelketaren karietara. “Jojo eta Ramuntxo” bikotearen ibilbideak erakusten digun bezala, txapelketa horri esker biharko euskal kantariak atxeman eta forma daitezke.**

